

# BERRIGARA

96. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, otsailak 19

**KARNABAL  
JAIK  
ASTEBUKAERAN  
BERGARAN**

**EUSKARA  
HITZARMENAREN  
URTEBETEKO  
BALANTZEA  
EZAGUTZERA  
EMAN DA**

**KIROLAK**

**BERGARA ETA  
BIZKOR  
ESKUBALOI  
TALDEAK  
LIDERGOAREN  
BILA  
LARUNBATEAN**



**EE: 14 URTE PASA ETA  
GERO... PSOEera**



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA  
ADIMENTSUA**



OPEL

**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEN:  
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.



# GAMAK

Martxorako teknologia ikastaro batzuk antolatu ditugu. Bertara joaten direnek ahalmen haundiko bi erramintaren manejuan trebatu daitezten.

**WORD PERFECT**<sub>a</sub>, testu-tratamendua erabiltzen dutenen artean zabalduena dagoen aplikazioa.

**CADY**<sub>a</sub> CADeko erramintarik potentenetakoa, eta aldi berean, erabiltzailearentzako erosoenetakoa.

## INFORMAZIO OROKORRA

Ikastaroak esperientzia haundiko irakasleek emango dituzte. Ikastaro bakoitzeko plaza kopurua 5ekoa izango da eta ikasle bakoitzak izango du beretzako ordenagailua.

<b>IKASTAROA</b>	<b>MARTXOKO EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>ORDU KOPURUA</b>	<b>MATRIKULA</b>
<b>WORD PERFECT</b>	1etik 24ra	10.00-12.00	20	15.000 pzta.
<b>WORD PERFECT</b>	1etik 24ra	16.00-18.00	20	15.000 pzta.
<b>WORD PERFECT</b>	2tik 26ra	18.30-20.30	20	15.000 pzta.
<b>DISEINU MEKANIKOA</b>	1etik 31ra	18.30-20.30	24	25.000 pzta.

**ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO,  
DEITU 76 56 85 TELEFONORA**

**Artzamendi, 1 BERGARA**



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurlaritza

**Erredakzioa**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkorobereziabar

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Edurne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta  
Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereziabar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta A. M. Goenaga.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Garzia, D. Santos, P. Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.300 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta eritzien erantzunkizunik.



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du**

## PROTAGONISTAK

### AMODIOA

Igandean ospatutako San Valentín egunaren inguruan, amodioa izan da protagonista. Nabaritu dute bai denda eta komertzioek ere Cupidoren eragina.

Loradenda ezagun bateko jabeak azaldu digunez, "asko saldu dugu baina krisia ere somatu da: lorasortak saldu beharrean jendeak nahiago izan du lora solteak erostea, larrosa gorriak eta orkideak batipat. Gero eta maitemindu gehiago dago". Bitxitegi-ekin ere berdin: "opariak egiteko obiturak gora egin duela esango nuke. Hala ere, urrezkoak baino zilarrezko



gauzak saldu ditugu" esan digu komertziantek batek.

Idaztea ere gustoko izan du jendeak. JARDUN Elkartek antolatutako *Amodiozko Gutunen I. Berrigara Lehiaketara* 264 gutun jaso dira. Erabakia martxoaren 18an emango da jakitera.

### Lorak, opariak... eta kartak San Valentín egunean

## ITURRI ONETIK

### Mendia Bizirik liburua lantzen

Mendia Bizirik bergarar talde ekolojista Eusko Jaurlaritzak argitaratzeaz duen *Mendi eta ingurugiroa Euskal Herrian* izeneko liburuan ari da lanean. Euskal Herriko Mendi Federazioaren enkarguz mendia talde ezberdinek (Pol-Polekoa tartean) euskal mendiei buruz egin dituzten azterketa ekolojikoak batu eta lanaren koordinaketari ekin dio *Mendia Bizirikek*. 120 orrialde ingururekin, 2 bat hilabete barru argitaratuko da.

## ESAN DUTE


"Artista bati jendea bere lanak ikustera joan dadila gustatzen zaio, baina saltzea ere nahi izaten du eta aurtengo ARCON, alde horretatik oso ondo joan zaidala aitortu beharra daukat".

**JESUS MARI LAZKANO**  
pintorea  
EUSKADI IRRATIA

"Arabako gizarteak onartuta du Euskal Herriaren Hizkuntza Normalizaziorako Proiektua eta, beraz, Araban ez dago gizartean, oroar, euskararen kontrako jarrera orokor, hedatu eta ahobatezkorik. Gertatu izan dena da azkenengo hizuzpalau urtetan zenbait sektore harrotu direla euskararen aurkako adierazpenak eta jarrerak bandera eginik; hor ditugu UA eta PSOeren kasuak".

**ENEKO OREGI**  
Teknikaria  
ETB (ADOS?)

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
Koltxoi-Denda  
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

**PELI NARBAIZA IBARZABAL**  
  
Mutua General de Seguros  
**Agentea Bergaran**  
Aseguru orokorrak  
Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57

**EZPELETA**  
etxea  
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak  
Barrenkale 44 BERGARA





### UNA MONJA DE CUIDADO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



### LA REINA ANONIMA

Osteguna: 19.30.

## Zinea

### ▼▼ Whoopy

#### Goldbergeke (*Ghost*)

era guztietako paperak landu ditu bere karreran eta komedietan batez ere primeran konpontzen da. Berarekin eta errepartoa osatzen duten gainontzeko aktore ezagunekin barre egiteko aukera duzue.

### ▼▼ Gonzalo

#### Suarez

zuzendariak **Carmen Maura** eta **Marisa Paredes** momentuko bi aktorea arrakastatsuenetarikoak bildu ditu komedia honetan.

Donostiako azken Zine Jaialdian aurkeztu eta ez zuen espero zen beste eskeini.

## Ikuskizunak

### ▼ Mozorro Jantzien Lehia-

**keta.** Larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 8etan Plazan. Bakarkako jantzietan 20.000 pta. lehenengoari eta 10.000 bigarrenarentzat. Taldekakoan 50.000 eta 25.000 pta.ko sariak lehen bientzat.

## Farmaziak

### ▼ Larunbata 20:

Mozos/Irizar.

### ▼ Igandea 21:

Mozos/Amezua.

### ▼ Astelehena 22:

Camacho/Aurora Ruiz.

### ▼ Asteartea 23:

Puy/Morales.

### ▼ Asteazkena 24:

Guallar/Español.

### ▼ Osteguna 25:

Estella/Español.

### ▼ Ostirala 26: Mozos/Irizar.

## Ogia

### ▼ Igandea 21: Bolintxo



# Gracian



• Usaindegia • Merzeria •

**KARNABALETAN BISITA GAITZAZU**

Bidekurutzeta 6, Tfnoa: 76 10 25 BERGARA

HARATEGIA

## ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



## KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

**HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62

# Pepelu

**Ileapaindegia**


Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07



## Erakusketak

▼ **Juan Jose Altuna** margolari bergararrak bere lanak ikusgai ditu Kultur Etxean astebukaera hone-tatik aurrera.



## Aukeran

▼▼ **Udal Musika Bandak** kontzertua emango du igandean eguerdiko 12.30etan Novedadesen. Eskeiniko diren piezak: *Robin Hood*, *lapurren Printzea* filmearen banda sonora (M. Kramer), *Zampa Obertura* (S. Herold), *Danza macabra* poema sinfonikoa (C. Saint-Saens), *Cabaret* filmearen banda sonora (J. Kander) eta, azkenik, *Inhauertietako Dantzak* (Herrikoia).



## Kirolak

### ▼ Eskubaloia:

- *Bergara-Don Bosco* (kadete mutilak). **Larunbatean** 16.00etan.
- *Bergara-Bizkor* (senior gizonak). **Larunbatean** 17.15etan.

### ▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Kiroldegian.

### ▼ Futbola:

- *Bergara-Kostkas* (lehen mailako jubenila). **Larunbatean** 11.30etan Ipintzan.
- *Bergara-DYA Poliklinika* (2. errejionala). **Larunbatean** Ago-rosinen 16.00etan.
- *Bergara-Soraluze* (infantil txiki). **Igandean** 11.30etan.



**5**

## PROFESIONALAK

• Astebukaera honetan ez dago pelota partidu profesionalik Udal Pelotalekuan ETBk larunbat arratsaldean Tolosako Beotibar pelotalekutik 16.30etan zuzenean eskeiniko duen Retegi-Tolosa eta Etxaniz-Zezeagaren arteko partidua dela eta.

**ZUBIETA**  
elektragintza

- ✓ Moloren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48

**TOKI-EDER**  
Taberna

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KAILASH**  
ZENTRO  
ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean  
diplomatutako profesionalak  
*Tarota • Hipnosia • Erresonantzia*  
Tfnoa: 76 01 31 (Irla)



**Luis Mari Bandresi**

Kaixo Luis:

Aspalditxoan hirekin lasai hitz egiteko aukerarik izan ez dudan arren, otsailaren 13an D. V.n argitara eman huen artikuloak, hirekin azkenengo aldiz Amara berrin egin nuen "txikiteoa" ekarri dit gogora. Orduan oso urduri ikusi hiru, eta larunbateko honek inpresio hori baieztatu baino ez dit egin. Ez da harritzekoa, izan ere gutxieneko "konsensus" sozialik gabe (Gurean ez diogu "konsensus" soziala deitzen parlamentari baten aldearekin onartzeari) Euskal Eskola Publikoaren eta Gorputz dozenteen legeak onartzekotan zarete Eusko Legebiltzarrean.

Orduan furrustadaka bukatu genuen gure hizketalditxoak eta oraingoan irainka bukatu nahi duk hire idazkia, "Esaidazu norekin ibiltzen haizen..." eta era horretako tentelkeriak esanaz.

Normaltzat jotzen diat Luis hire urduritasuna, izan ere gure gizartean polemiko samarra bihurtu den egoera bati irtenbide bat ematen saiatu zarete, baina gure gizartearen zati haundi baten iritzi, eskasa, eta Euskal Eskola Publiko Berriari oinarri sendo batzuk ezartzen saiatu diren askoren eskaintzak ahaztu eta baztertuaz.

Eta nik honen berri ederki asko badakit ere, gogora ekarriko diat gurea bezalako ikastola batentzat (Bergarako Aranzadiri buruz ari nauk), diseinatu

duzuen horrek esan nahi duena:

a. Era guztietako autonomia baztertzea, laborala eta finantzieroa bereziki galduaz.

b. Datorren ikasturtetik aurrera erdal irakasleak izan beharra (D ereduari hama-lauko bat).

d. Ikastetxeen tipologia berriaren araberak, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bihurtzea, proiektu pedagogiko orokor bat ezabatuz.

e. Urteetan zehar osatu den plantila desegitea.

Guzti hori, "eskola publiko" zenarekin bataiatua izateagatik. Ez al zaik larregi iruditzen horrelako negozio bat?

Ulertezak beraz, oraingo eskola publikoarentzat hobekuntza izan daitekeena guretzat ikaragarritzko galera izango dela. Hogeitabost urtetako lana lurperatzea izango baita.

Gauzak horrela, eta ziur naiz heu ere ikastola batetako guraso haizenez ikuspegi honekin bat datorrela, nola saiatu haiteke gaur egun ankerrentzat saku bat egin eta hirekin ados ez dauden guztiak bertan sartzen Bilbora manifestaldi batetara joan direlako?

Ni horietariko bat izan nauk Luis, eta gutxi gorabehera ezagutzen duk nire pentsakeraren nondik norakoa. Baina gehiago esango diat. Autobusez joan nintzen Bilbora eta autobus hartan era guztietako abertzale edo nazionalistak zeuden: EA, EAJ, EE eta HBko boto emaleak; ELA eta LABeko afiliatuak; garbitzaile eta ekono-

milariak; etxeoandre eta langileak... Hori izan huen lehenguneko manifestaldia osatu zuten anker desestabilizatzaileak Luis. Hori ez ikusi nahi izatea itsua izatera jotatzea duk.

Baina ikastolen historia luzea duk eta dudarik gabe euskaldun guztion den Eusko Legebiltzarrena baino luzeagoa, edo nik politikan daramadana baino luzeagoa adibide gisa. Itxura deenez, aurrerantzean ere jarraitu beharko du eta ez zaigu Euskal Eskolaren gaiari buruz, berriro, patxada haundiagoz, hitz egiteko aukerarik falta izango.

Honela gertatuko delakoan, hire lagun honek.

***Iñazio Arregi, Aranzadi  
Ikastolako Zuzendari  
Gerentea***

**Zuzenketa bat**

Orain dela bi asteko Berrigarán, Oñati Irratiari buruzko informazioan, urteko presupuestoa 7 milioi pztakoa zela adierazi genuen eta oker zegoen. Iazko aurrekontua, milioi erdi gehi bi lagunen soldatena izan zen. Langile bat egun osoz eta bestea egun erdiz.

Beraz ez da zazpi milioitakoa gutxiagokoa baizik. Okerra zuzenduta gure barkamenak Oñati Irratiari.

***Berrigara***

**Tiira ba!**



**Josu Okina**



# Aratuzteak 92

*Karnabaletarako programa zabala prestatu da Bergaran zein Antzuolan*

## Larunbata, 20

• **16.30:** Gaztelu-Txikiko jaia (Antzerki eta jokuak) San Martin Plazan.

• **18.00:** Hankaluze, buruhaundi eta erraldoein kalejira, KOBOK dulzaineroek alaituta.

• **19.00:** XAMATZen kalejira.

• **20.00:** Mozorro jantzien lehia-keta. Sariak: Bakarkako jantzietan, 20.000 pzta. lehenengoari eta 10.000 bigarrenari. Taldekako jantzietan, 50.000 pzta lehenengoari eta 25.000 pzta bigarrenari.

Bitartean TXIMELETA txarangak alaitutako kalejira.

• **23.30:** TXATANUGA FUTZ BAND taldeak alaitutako dantzaldia.

• **25.00:** Mozorro jantzien lehia-ketako sarien banaketa.

## Igandea, 21

• **12.30:** Udal Musika Bandaren Aratuztetako kontzertua, Novedades aretoan.

• **17.00:** "Rahma Khan" fakirra eta "Joyra" magoa, Zabalotegiko aretoan.

• **20.00:** "Degustacion de entremeses" antzerkia OXIRONDO antzerki taldeak emana, Zabalotegiko aretoan.

## Asteartea, 23

• **15.30:** Mozorrotutako haurren kalejira. Ondoren, Musika Eskolako Txarangaren kalejira.

• **17.00:** Haurrentzako berbena ZUENTZAT taldearekin San Martin plazan.

• **22.30:** DRINDOTS taldearekin dantzaldia.

• **24.00:** Sardinen entierua.



Aurten ere mozorro jantziek kalea hartuko dute astebukoeran karnabalak ospatzeko

## Mozorrotutakoen kalejira Antzuolan

Antzuolan aspalditik errotuta dagoen **Mozorrotutakoen kalejira hartza eta tximinoarekin** eta **Sorgin Dantza** antolatu du Antzuolako Dantza taldeak Karnabal Iganderako.

Goizeko 10etan kalejira egingo da herrian zehar eta 12.15etan Herriko plazan 4 dantza eskeiniko dira: taldeko umeek *Saint-Petit* dantza emango dute; nagusiek eta irailetik hona entsaiatu dutenek, *Fandangoa* eta *Arin-arina*; nagusien taldeak *Larrain Dantza* eta, azkenik, nagusien taldeko mutilek

*Sorgin Dantza*.

Bestalde, larunbatean Gazte-txearen aldeko jaia iragarri da. Eguerdiko 12etan *Pelota Barru Popularra* jokatu da. Ondoren salda eta txistorra banatu da bildutakoen artean.

Arratsaldeko 4etan haurrentzako jolasak izango dira. Setan txokolatada, 7etan poteo popularra, 8etan "Nikolasa" txerriaren zozketa eta gaueko 9etan afaria Gazte-txean. Egun guztian zehar mozorrotuta ibiltzeko gonbitea luzatzen diete herritarrei antolatzaileek.



### Bergara XIII. Ehiza Txapelketa

Bergara XIII. Ehiza Txapelketa jokatu da datorren martxoaren 7an Zuazun (Nafarroan). Izena emateko epea otsailaren 23tik 25ra bitartean egongo da zabalik, Oilagorran gaueko 9etatik 10etara, bazkideek 4.000 pta. eta gainontzekoek 5.000 ordainduz.

### Balnearioetan Jubilatuentzako egonaldiak

Gipuzkoako Diputazioak pentsionistentzat hainbat balneariotan (Arnedillo, Fitero eta Zestoa) antolatzen dituen egonaldietara joateko interesa dutenek izena eman dezakete Jubilatuetan, astelehen, asteazken eta ostegunetan. Goizez 10.30etatik 13.00etara eta arratsaldez 3retatik 4retara N.A.N.ren fotokopia eta, 60 urtetik gorakoek, pentsioaren justifikantea eraman beharko dute. Martxotik abendura bitartean, egonaldiak 15 egunekoak izango dira. Informazio gehiagoren bila 762140 telefonora dei dezakezue.



Orain urtebete 49 taldek sinatu zuten Euskara Hitzarmena.

## Euskara hitzarmena

*Gaur goizean urtebeteko balantzea ezagutzera eman da*

Gaur goizean, orain urtebete sinatutako Euskara Hitzarmenaren balantzea eta zabalkunde kanpaina aurkeztua izango dute Kultur Etxean Mari Karmen Garmendia Hizkuntza Politikorako Idazkari Nagusiak, Victoriano Gallastegi alkateak, Koldo Pereira Udaleko Euskara Batzordeburuak, Jose Angel Mikeo JARDUN Elkarteko lehendakariak eta Elisabet Payros Hitzarmeneko teknikariak.

Bergarako 49 taldek sinatu zuten hitzarmenak taldeen arteko harremanak edota barne-adminis-

trazioa euskaraz izatea zuen helburu. Eli Payros udal teknikariak Berrigarari adierazi dionez, "balorazioa positiboa da talde guztietan aldaketa somatu baita, zenbait kasutan erdara hutsetik euskaraz funtzionatzera pasatuz". Arazoei buruz, Elik zera aipatu digu: "kirol talde gehienek erdaraz egin behar dute Federazioarekin eta zenbait berriemailek ere ez dute lortu taldeen informazioaren % 50a euskaraz izatea". Emaitzak publizitate kanpaina baten bidez emango dira ezagutzera.

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA



ARRAN  
Taberna  
Kruz Gallastegi BERGARA

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK  
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7  
behea. Tel. 76 50 39





Enpresak EEEko arategira egokitu beharko dira.

## Ingurugiroa zaindu nahian

*Diputazioak enpresei dirulaguntzak emango dizkie*

Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako Komunitateak indarrean jarri duen ingurugiroaren esparru juridikora egokitzeko interesa duten enpresa ezberdinen artean dirulaguntzak banatuko ditu. Ingurugiroan ahalik eta kalte gutxien sortarazteko asmoz, Diputazioak jatorrizko kutsaduraren murrizketa eta, era berean, teknologia garbier garapena proposatzen du.

Honek kostu haundia sortuko duenez, Diputazioak onartutako foru dekretuaren arabera, Foru Haziendarekin zerga betebeharre-

tan egunean egon eta ingurugiroaren hobekuntza helburutzat duen edozeinek eskatu dezake dirulaguntza.

Hobekuntza bilatzen duten industri zuzenketak edota ingurugiroko auditoriak egiteko bideratu beharko dira dirulaguntza horiek eta egin beharreko inbertsio osoaren % 30-60 tartean kokatuko dira, aurren 125 milioi pta. ko partida bat aurreikusita dagoelarik. Laguntzak jasotzeko eskakizunak Diputazio-ko Obra Hidraulikoen Departamentuan aurkeztu beharko dira.

## Irrati eredu inguruko mahai-ingurua

Joan den ostegunean, Txapa Irratiak antolatuta, irrati eredu inguruko mahai-ingurua izan zen UNEDeko aretoan. Bertan, Oñatiko udal irrati, Hernaniko Molotov irrati librea, Txapa eta Bergarako Udaleko ordezkari bana bildu ziren. Luis Abajo kultur zinegotziak esan zuenez, "Udalaren asmoa datorren otsailaren 27an Txapa ixtea da baldin eta baldintza batzuk betetzen ez baditu. Lokala egoera oso txarrean dago eta segurtasun aldetik ez da inolako neurri-rik betetzen". Udal irrati jartzeko dagoen asmoari buruz, Luis Abajok bi irratiek beren tokia izan dezaketela adierazi zuen. Txapa Irratiko ordezkariak, berriz, alkateari egindako irainei buruz zera esan zuen: "Txapa Irratiko asanblada ez da arduradun egiten programetan esandakoaz, horren arduradun bakarrak programa egileak dira". Azkenik, Udalak gazteekiko duen jarrera salatu eta herriko beste kultur taldeek bezala lokal bat izateko eskubidea aldarrikatu zuen.

Artekale, 15  
behea.  
BERGARA  
☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO  
ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## LXLIKUN

**BEREZITASUNAK**

Fraiskoziuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

## MINER Ardo onak, ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



**Kiniela arrakastatsua**

6 lagunek asmatu zuten Berrigarak Etxaniz eta Zezeagaren pelota partiduen inguruan antolatutako kiniela, asmatzaile bakoitzak 19.600 pta. ko saria eskuratuz. Guztira 168.000 pta. jaso ziren eta hurrengo kiniela larunbat honetan bergarrek Retegi eta Tolosaren aurka duten partiduarekin egin ahal izango da.

**Etxebizitzen zozketa**

Datorren ostegunean, otsailak 25, Artzamen-di kaleko 63 etxebizitza itunduen zozketa publikoa egingo da arratsaldeko 6 terdientan Zabalotegiko aretoan.

**Agustin Gurrutxaga garaile**

Agustin Gurrutxaga Pol-Pol Argazki Taldeko kideak lehen saria lortu du zuribeltzean eta diapositibetan Zumarragako Santa Lutzi lehiaketan.



Udala, Pol-Pol Argazki Taldea eta Ariz-Ondoren arteko lana

**Ondare Historikoa**

*Ariz-Ondo hilabetekariaren bildumagarria*

Asteazkenean Victoriano Gallastegi alkatea, Andoni Larrañaga kultur zinegotzia, Xabier Aranburu udal museologoa eta Pol-Pol Argazki Taldea zein Ariz-Ondo aldizkari ordezkariek, aldizkari honek kaleratutako duen Bergarako Ondare Historikoaren bildumagarria aurkeztu zuten Kultur Etxean.

Urtarrileko zenbakia-ekin hasi eta datozen 11 hilabetetan Bergarako Ondare Historikoaren inguruan landutako kapituloak banatuko dira errebistarekin batera. Bertan, Azken Gotikoa, Errenazimendua eta Barroko

denborako arkitektura, pintura, eskultura edo arte-xehe lanak izango dira aztergai. Victoriano Gallastegiren hitzetan, "ondare historiko aberats eta zabalaren jabe da Bergara eta beharrezkoa egiten da ezagutzera ematea".


German Larrañaga Ariz-Ondoko partaideak aurreratu zuenez, "bildumak 1.500.000 pta. inguruko aurrekontua du, 3.500 ale kaleratuko dira eta gure asmoetako bat, hurrengo pausu bat bezala, jendeak Bergara bisitatzea litzateke". Bildumako tapak Kultur Etxean eskura daitezke.

**Mendi irteera**

Alpino Gorlak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak datorren iganderako, hilak 28, Dima-Balzolako kobazuloak-Mañaria mendi irteera iragarri dute. Irteera goizeko 7etan izango da Plazatik eta interesatuek txartelak Pol-Pol tabernan eros ditzakete.

**Istripua eta susto ederra**

Joan den ostiral arratsaldean Ramon Maria Lili kaleko 4. zenbakian gas-oil depositoa betetzen ari zen Pegaso SS-4266-S matrikuladun kamioiari frenoak hautsi zitzaizkion eta aldapa beheara joan zen, bidean ziren eskilarak eta Ibargarai kalea zeharkatu eta Lagun-Aro aseguru etxearen kotxe bat ikutu ondoren, azoka plaza ondoan dagoen tablauaren kontra jo arte. Zorionez, eta trafiko zein oinezkoen ohizko pasabidea dela kontutan izanik, ez zen gerta zitekeen istripu larriarik ezta zauriturik egon.



**Olerkiak ikasleentzat**

Gipuzkoako Diputazioak ikasleei urtean zehar eskeintzen dien programaren barne, Mariaren Lagundia eta Lanbide Heziketa Eskolako REMeko ikasleek Josean Artzeren olerki emankizuna izan zuten asteazkenean Mariaren Lagundiko aretoan. Josean Artze olerkari ezagunak bere poesiarren inguruan landutako ikuskizun bitxia eskeini zuen, diapositiba eta zarata hotsei ere areto osoan zehar protagonismo handia emanez. Bertan bildutako 200 ikasle inguruk olerki eta eszenografia ikusgarri batez disfrutatu zuten.



# SAN MIGUEL PE

## Zubiaurren

Auzoko lagun talde baten inizatiba zela medio sortu zen San Miguel-Pe elkarte 1946.eko irailaren 20 an. Elkarte hau orain Beti Alai dagoen leku berean zabaldu zen lehen aldiz. Lokal hura alokairuan zuten, eta ordaindu beharrekoa goraka zihoan. Zubiaurreko 19an beste lokal bat erosteko aukera izan zuten eta bertara joan ziren 1976. urtean.

### Bazkideak

Elkarte sortu zenean 46 bazkide ziren. Gaur egun taldea 143ra iritsi da. Guzti hauetatik 100 bazkide kuotadun eta beste 43 jubilatuta daude. 143 bazkide hauen baztazbesteko adina 45-50 urtetakoa da. Orain jende gaztea ari da sartzen elkartearen. Aurten 5 bazkide berri sartu dira San Miguel Pen, eta beste 3 noiz sartu ahal izango zai daude.

Guzti horretaz gain, San Miguel Pen ohorezko hiru bazkide daude. Hala nola, Miguel Okina, Luis Mari Idigoras (elkartearen egin zuena) eta Julio Azkargorta.

### Diruak

Azken urte honetan kontsumoan batu duten kaja 3.300.000 pztara iritsi da. Presidentea den Miguel Angel Unamunok eta Jabier Juaristik azaldu diguten bezala, kontsumoa urtetik urtera mantentzen doa elkarte honetan. Urtean 13.000 pztako kuota ordaintzen dute. Elkarte honetako faltak batz-



Argazkian elkarteko kide batzuk

besteko %0,9koak baino ez dira izaten.

Elkartearen eguna San Miguel eguneko larunbatean ospatzen dute afari bat eginez bazkide guztientzat.

San Miguel-Pek ere bere laguntza eskeintzen du herrian egoten diren

ospakizunetan, besteak beste.

Sukaldean trebeak direnak ere baditugu hemen. Besteak beste, Martin Alberdi eta Anton Garitano ditugu hemen.

### Proiektuak

Orain duten berogailuak 16 urte ditu. Zahartua gelditu da eta kontsumo handia du. San Miguel-Pe ko urteroko junta orokorra laister da, eta bertan berogailua aldatzeko proposamena egin behar dute.

*Ainboa Lete*

## FITXA TEKNIKOA


**SORTU:** 1946an.  
**BAZKIDEAK:** 100.  
**HELBIDEA:** Zubiaurre, 19.  
**PRESIDENTEA:** Miguel Angel Unamuno.  
**ELKARTEAREN EGUNA:** Irailaren 29a.  
**URTEKO KUOTA:** 13.000 pztara.

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

ITURKINTZA



ITURKINTZA

**ARISTEGI - TOLA**

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

**MAKAILO**

Makailau kazuelak



**ETXEA**

gertatzen ditugu

Ibargarai 15



**Euskadiko Ezkerraren bilakaera sakona izan da 1982an lehen kongresua egin zuenetik. Bilakaera horrek zatiketa eta alderdia en desagertzea eka ri du azkenea 1. Alderdian ibilitako asko momentuz politikatik aldentuta daude, beste zenbait PSOerekiko batasunean sartuko dira eta beste batzuk EUEn.**



Anton Barrutia eta Alvaro Esparzak, EEn egon ondoren bide ezberdinak hartu dituzte

# EE: 14 urteren buruan... agur

*Larunbat honetan Eibarren, azken Biltzar Ttipia*

**B**ergaran EE 1979-an sortu zen, EIA-ren kongresua egin eta gero, alderdi hartako hainbat militante EE sortu zuten. Hasean 60 afiliatu inguru ziren, haien artean honako hauek izanik: Anton Barrutia, Sabin Zabaleta, Maria Dolores Unamuno, Jose Miguel Moñux (EIA), Jose Luis Egin, Jose Antonio Sanchez ...

Anton Barrutiak, orain politikatik kanpo dagoenak baina Bergaran EEko sortzailetarikoak izan zenak, dioenez, "garai haietan ezker abertzalean bi mundu zeuden, bata ETA (m) ren inguruan mugitzen zena eta bestea ETA(pm)-ren inguruan. Guk bigarrena aukeratu genuen eta hortik abiatuta EE sortu zen. EEk garai haietan beste talde

politiko batzuk baino konpromiso gutxiago zuten eta ikuspegi zabalago batez ikusten genuen orduko politika, honela beste talde batzuetako partaideak ere etorri ziren gure proiektura hor daude PCEkoak. Bergaran hauteskundeetan mantendu izan gara, batzuetan ia 1.000 boto lortu genituelarik, baina honek militantzian ez zuen isladarik izan, gure militantzia nabiko itxia zen eta HBko munduarekin beti izan dugu arazo asko eta honek asko mugatzen gintuen".

**"HBren partaidetza beharrezko da"**

Azken urteetan EEko bi tendentzien arteko gatazka areagotuz joan da

eta 1992an eginiko kongresuaren ondoren alderdia zatitu egin da. Batzuk PSOerekin bat egitea erabaki dute eta besteek EUE alderdia sortzea erabaki dute. Anton bi irtenbide hauetatik kanpo gelditu da: "ni azken kongresuan EUEren jarriren alde nongoen gehienbat, baina ikusten dut EArekin joan ezkeroraindik ez direla batzen indar abertzale guztiak, nire ustez proiektu berri bat sortu behar da eta hemen beharrezkoa da HBren partaidetza. HBk orain dituen arazoak (presoak eta borroka armatua) konpontzen direnean, uste dut ezkerreko indar abertzale zabal eta indartsu bat lor daitekeela eta hortik ikusten dut Euskadiren etorkizun politikoa".

## Euskal Ezker

Jose Luis Eginok EUEn sartzea erabaki du. Bere ustez, "bi proiektu sortzean beti daude interes pertsonalak... eta ikusten nuen bi proiektu ezberdin zeudela alderdi berean, ondorioz ikusi nuen EUEren proiektua zela guk haseran geneukan proiektuarekin zerkusi gehiena zuena. Gainera EUEra joandako jendearen planteamendua garbiagoa izan da. Orain ikusten dugu jende asko ez dagoela ados ez PSOerekin, ez EAjrekin, ezta HBrekin ere eta hor kokatu behar litzateke gure proiektu berriaren esparru politikoa".

Bergaran EUE hurrengo hauteskundeetan EArekin batera aurkeztuko da hauteskundeetara,



nahiz eta oraindik ez duten izan bilera politikorik. Banaketa prozesua ere aztertu genuen eta Jose Luisentzat "Bergaran ez da egon Auñamendi eta Renovacion Democratica banaketarik, gure banaketa prozesua bakean eta trauma barik burutu dela esan daiteke".

### EE-PSOEn arteko batasuna

Igandean bilduko da, Eibarren, EEko Biltzar Tipia PSOekin biltze prozesua nola burutuko den erabakitzeke. Alvaro Esparza gelditu da Bergaran EEko buru eta berak honela baloratu du, elkarte prozesua: "nire ustez prozesu hau logikoa da, Euskadin orain 3 alternatiba daude: EAJ, PSOE eta HB. Nire ustez EEren proiektuak ez du porrot egin, orain EEen sartzearekin Euskadik euskal kultura sozialista bultzatu behar du. Hemen izan ditzakegu arazoak PSOekin baina beti ere uste dut proiektu berri hau Euskal sozialismotzat hartu daitekeela. Sozialismo honek euskal gizartearen eta kulturaren egituraketaren aldeko apostua egin du, honen bitartez Autonomia Estatuaren moldaketa bilatzen du, baina beti ere Konstituzioa errespetatuz".


Bergaran bateratzeak karguen banaketa ere ekarriko du, eta Jabier Cendoyak, Bergarako PSOeko buruak dioten moduan "oraindik ez daukagu zehazturik nola egituratuko garen, hori Bergarako PSOE eta EEren arteko asanbladak erabaki beharko du, baina seguruenik ni eta Alvarooren artean egongo da Bergarako zerrenda burua".

# Esparza eta Cendoya, puntua jarrita

**1. "Euskadi nazio bat da eta proiektu politiko berrian, Euskadi nazio bat dela pentsatzen jarraituko dugu". Jon Larrinaga. DEIA. 93-1-31.**

**2. "Alderdi sozialistak ez du sentimendu euskalduna bultzatuko, kontrakoa baizik". Josu Osteriz Nafarroako EEko idazkari ohia. ARGIA. 93-1-24**

**3. "EEk PSOEn nazionalismoaren aurkako tesi guztiak bereganatu ditu, ez dira PSOEn azala aldatuta sartu baizik arima ere aldatuta". Xabier Arzalluz.**




**ALVARO ESPARZA**

**1. Nik** uste dut Euskadi badela nazio bat, guk Euskadi, Europa, Espainia eta Autonomiaren barruan ikusten dugu, beti Konstituzioa errespetatuz. Gure sozialismoak Euskadiren egituraketa sozio kulturalaren alde egingo du, kontuan hartuz gure herriaren pluraltasuna.

**2. Pentsatzen** dut alderantziz izango dela. Ni ere Nafarroan jaioa naiz, Pitillasen, eta han pentsatzen da Nafarroa Nafarroa dela eta ez Euskadi, Osterizek pentsatuko du Euskadi dela eta bere adierazpenak hortik ikusten ditut.

**3. Ez** nago ados, gu beti egon gara Euskadiren egituratzearen alde, ekologiaren eta bakezaletasunaren alde eta mugimendu sozialekin ere beti eduki ditugu harremanak eta hemendik aurrera berdin jarraituko dugu. Arzalluz urduri samar dagoela uste dut.




**JAVIER CENDOYA**

**1. Nire** ustez hau Larrinagaren hanka sartze bat da, gu orain Eskubide Estatu batean gaude integraturik, Espainian, eta uste dut jarrera hau errespetagarria den arren, horrela jarraitzen badu arazoak izan ditzakela.

**2. Ez** nago ados, PSOE Euskadin sortutako lehen alderdia da eta gu asko hemen jaioak gara, nik abizen guztiak euskaldunak ditut. Guk gure herria, kultura, euskara ea.. bultzatzen ditugu.

**3. Ez** nago ados, EE haseratik alderdi sozialista eta ezkerrekoa izan da. Euren jarduera politikoan nazionalismoak garrantzia izan duen arren, orain argi ikusi dute euren eskemak bultzatzeko aukera bakarra sozialismoaren bidea dela.





APBénit.

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**EDEL**

**tapizdenda**

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialeak**

Billegia Tellerlan, ☎ 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

**Karnabalak noiz nahiago,  
larunbatean ala asteartean?**



**Marisabel Oregi**  
23 urte, ikaslea

Asteartean, betidanik giro hobea izan delako. Hala ere, bietan mozorrotuko naiz.



**Jose Ramon Kortabarria**  
31 urte, langilea

Neri asteartea gustatzen zait, ambientea hobea delako eta ohituragatik, tradizio haundiago du Bergaran.



**Andoni Larrañaga**  
16 urte, ikaslea

Larunbat gauean, juerga handiagoa egoten delako. Asteartean, berriz, egun osoan.



**Rakel Mujika**  
30 urte, langilea

Larunbatean nahiago, lanagatik, asteartean irtetzen ez naizelako. Dean den ambientea hobea dago.

**J a t e t x e a**  
**J u b i l a t u e n**  
**T a b e r n a**

**MENUA** 750 pezeta

**AFARIAK**

Kuadrilentzako aproposak

Prezio onean

**KAZUELATXOAK**

☎ 76 62 71

ANTZUOLA





**Itoiz**

Hondamendi ekolojikoez hitz egiterakoan, ibaien kutsaduraz, errepide berrien arazoaz, industria kutsagarriez etab. ari gara normalean. Baina bada beste arazo ekolojiko bat, alegia, urtegi berrien eraintzuzena.

Azkenaldian, Itoizeko proiektua dela eta, urtegiei buruzko eztabaida berpiztu egin da; orduan, Riañoren kasu famatua datorkigu burura. Integral aldizkariko azken alean, Estatuko urtegiei buruzko erreportai batean zera irakur daiteke: "Riañoko urtegia martxan jarri zenetik sei urte pasa eta gero, oraindik ez du balio izan bere helburu nagusia zena betetzeko, hots, nekazal lurak ureztatzen. Ondorioz, espekulazio handia ematen ari da, lur hauek eraikuntzarako saltzen direlarik".

Kasu hau Riañokoa dela pentsa daiteke eta ezin dela parekatu Itoizeko proiektuarekin. Baina Itoizeko urtegia egitea komenigarria den ala ez alde batera utzirik, orain dela bi aste ETBko «Dr. Livingstone» programan, Itoizi buruzko erreportaiari bertako jendearen adierazpenak entzutean zera pentsatu nuen: urtegia egitean ez dela paraje eder bat bakarrik galtzen herri baten historia ere hor joango bait zaigu.

**Jon Ander Bengoa**



**Lotsagabekeria**

- Kaixo, zer moduz? Aspaldian ikusi gabe, eta nola dabil emaztea?
- Oso ondo, mila esker.
- Eta seme-alabak ere ongi? Seme zaharrena jada soldadutza egiteko adinean egongo da ba, ez da ala?
- Benon, ba bai...
- Begira, nahiez gero semea soldadutzatik libro dadin lortu dezaket.
- Zer diozu?
- Oso erreza da. 400.000 pta.gatik hitzegingo nuke dauzkaten lagun batzuekin eta zure semeak ez luke soldadutzarik egin beharko.

Neurtu ezina da batzuek duten lotsagabekeria; ez dauka mugarik. Honelakoak, soldadutza gaitzesten duten eta gaitzeste honi buruz dituzten ideietatik kartzelara ere joateko adorea duten gazteei barre egitea da.

Eta dena diru erreza lortzearren.

**Monika Belastegi**



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 48 51

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51

**ONENA**

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

**IZARRA**  
Ileapaindegia



**Mistoa**

San Pedro 23 Tfnoa: 762972



# Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# TABERNA ZAHARRA

*Jatetxea*


**Bazkariak  
eta  
afariak**

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR



## □ Momentu onean

Jesus Maria Lazkano margolari bergararrak bere azken lanak ikusgai ditu Madrilen ospatzen ari den ARCO ferian, Antonio Machon galeriaren bitartez. 100 metroko *stand* batean, 33 urteko margolariak, azkenaldian Europa erdialdeko arkitekturaren oinarriturik egindako 15 koadro erakusgai ditu eta kritikaren oneritzia jaso du, arte zirkuluetan lortu duen prestijioa berriro baieztatuz. Azken lan hauek oroimen eta denboraren erreflexioak omen dira eta Jesus Mari negutegiak margotu ditu batipat.



Jesus Mari Lazkanoren "Naturaleza urbana" izeneko koadroa



**IRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**

San Pedro 11  
☎ 76 51 65

 **IZADI**  
**Santiveri** PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**ITXASMENDI**

**Taberna**

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA





□ **Mugarriak Bergara eta Azkoitia artean**

Asteazken goizean **Patxi Alberdi** Azpeitiako zinegotzia, **Carlos Arrondo** Bergarako Udaleko auzoetako zinegotzia, **Joseba Aizpurua** nekazal teknikaria eta hainbat udal langile Elusu inguruan izan ziren Azkoitia eta Bergara arteko mugan falta ziren bi mugarriak jartzeko, bata Pol-Pol iturriaren ondoan eta bestea Santutxuko ermitan, argazkian ikus daitekenez. Azkoitiarekiko muga markatzen duten beste mugarriak Elusu-Mendiko antenaren inguruan eta Elusuko eliza ondoan aurki ditzakezue.


□ **Porteriak finko**

Joan den ostegunean Hernaniko 14 urteko mutil bati gainean erori eta larriki zauritu zuen porteriaren modukoak Bergarako **Ipintza** futbol zelaiaren ere badira. Gipuzkoako Futbol Federazioak banatutakoak dira eta ez omen dira ondoegi eginak, pisu gehiena aurrekaldean koncentratzen delako. Hori dela eta, eta Hernanin bertatutako istripua bezalakorik berriro errepika ez dadin, ostiralean bertan **Udal Kirol Zerbitzuak** porteriak atzekalde partetik ondo eusteari ekin zion. Porteriak finko, ekin bildur gabe golak sartzeari!




**Zertan dihardute ba?**

MIGUEL ANGEL SANCHO



Zaragozan jokaturako Pista Estaliko Espainiako Promesa Txapelketan Arrasate Kirolak taldeko 24 urteko bergarar hau erdi-finalera heldu eta 7.12 seg. denbora lortu zuen 60 m.tan.

**MOTOR GIDARIAK**



Joan den larunbatean Donostiako Anoeta hotolean Angel Bideluze, Alex Elizburu eta Ramon Ambroi bergarar moto gidariek Euskal Mendiko Motor Federazioaren trofeoak jaso zituzten.

**GURIDI** Altzariak

**Era guztietako altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**EGUREN GESTORIA**

**Maria Pilar Eguren Diez**  
Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**SUBIJATI**

**Gazteentzako moda**

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



# Umore giroan

## Soldadutzan diru barik

"Petit Patxoa", eibartar xelebría, soldau zeguan Galizian. Bere kartetan beti diru eske zeguan etxekuei. Aitxak, aspertuta, idatzi zetsan:

- Geixago ezeik eskribidu etxera diru-eske!

la sei illebetian ez zeban idatzi semiak. Beñ baiña, sobre aundi baten, bialdu zeban fotografixa bat. Ara zelan agertzen zan: etzinda, zapatzen zuelak zulatuta erakusten, fraka eta txaketako boltsikuak bueltatuta. Eta fotografixa azpizan au jartzen zeban: "Este es vuestro hijo Ramon".

## Iñok nai eztabena be falta

Alkartu da eibartar bat plaentxiar batekin. Zeozer esan biar eta esatetsa "ciudad ejemplar" ekuak:

- Zelan zabizie Plaentxian? Ze bizimodu daukazue?

- Bizimodua? Gaizki, mutill! Ara zertara eldu garan: iñork sekulan nai izan eztabena be -biarra-, axe be etxakau oiñ!

*Pedro Zelaia*



Begarako Orfeoia gaur egun

## ORAIN DELA...

### Azkenean Orfeoia emango du kontzertua Madrilen

Azkenean Orfeoia joango da Madrilerá. Lehenengo baietz, gero ezetz, ondoren dudán eta azkenean, baietz, joango dela Orfeoia Madrilerá Radio Televisión Españolako koru eta orkestarekin batera "Israel en Egipto" obra zaila interpretatzera.

Odon Alonso maisua gure herrian izan zen joan zen asteartean Orfeoikoekin zenbait entsaio egiteko asmotan. Baina ez zuen panorama ederra aurkitu orfeoilaria, gehienak, kale egiten baitzuten entsaioetara. Hori ikusita, bilera urgente batera deitu zitza-

ien Orfeoiko kide guztiei beren postura jakiteko asmoz. Joan zen asteazkenean egin zuten bilera Orfeoikoek eta Odon Alonso maisuak eta honek garbi adierazi zien entsaiorik gabe ezin izango zela obra aurrera eraman eta, ondorioz, Madrilerá bidaia bertan behera utzi beharko zela. Bileran Orfeoikoek entsaioetara joateko eta obra jarritako egunerako gertatzeko konpromisua hartu zuten. Hori dela eta, orain seguru esateko moduan gaude, Bergarako Orfeoia joango dela martxo amaiera aldera Madrilerá.

1973-2-17 J. L. Bikuña. La Voz de España.

**Aranzabal**

**OIHAL ETXEA**

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50


**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

**ORTZI**  
ERRETEGIA


ANGIOZAR ☎ 76 22 68

**Kiroldegiko  
Taberna**



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

**HEMEN**  
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



# BONOFOTOA



M. A. Elkorobereziibar



## Felisa Kortazar

Felisa Kortazarri eman diogu aste honetan BONOFOTOko saria. Orain dela bi asteko argazkian agertzen zen baserria **Askatu** zen eta erantzun hori jarri zuen Felisak **10.000 pzta.**ko saria eskuratu du.

ZORIONAK berari eta ea besteok hurrengoan suerte hobea duzuen.

*Etxe honetako bi seme Bergarako alkate izan ziren XVIII. eta XIX. mendeetan. Nortzu ziren alkate horiek eta zein da etxe honen izena?*


Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Aste honetako saria : 10.000 pzta.**


Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA Errotalde Jauregia Bergara**

**EMAIOZU BUELTA ORRIARI...**







# ... EMAN EZAZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



**ZIPRISTIN OINETAKOAK**

☎  
76  
57  
36

## anezka

oihalak, lenzeria eta merzeria

☎ 76 59 25



**ALDASORO OINETAKOAK**

☎ 76 01 18



☎ 76 20 70



Z  
U  
H  
A  
I  
Z  
T  
I

☎ 76 59 22

# ESPOLOIKO DENDARIAK

**BISITA GAITZAZU**



## BEGOÑA PAYAS: "Formazio osatuagoa ematen diegu haurrei"

### Beti-Busti

Beti-Busti piraguismo taldeak antolatuta, asteazkenean, hilak 24, Oscar Chanca piraguismo entrena-tzaileak hitzaldia eta bideo emanaldi bat eskeiniko ditu 19.45etan Kultur Etxean. Bestalde, taldeko partaide izan nahi dutenek 2.500 pta. ordaindu eta 2 argazki eta N.A.N.ren fotokopia aurkeztu dezakete Kayak tabernan.

### Eskalada

Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek antolatuta, 14 urtetik gorakoentzako eskalada ikastaroa izango da martxoaren 1etik 11ra Kiroldegian. Bazkideek 1.000 pta. eta gainontzekoek 2.000 ordaindu beharko dute Kirol Zerbitzuan.

**Hainbat ikastetxetako 8 urtetik 14 urtera bitarteko 900en bat neska-mutilek hartzen dute parte astebukaeretan Eskola Kiroleko txapelketa ezberdinetan. Begoña Payas dugu bertako koordinatzailea.**



### - Zein izan da Eskola Kirolaren eboluzioa?

- Orain 7 bat urte sortu zen Diputazioak bultzatuta eta hemen Bergara K.E.k hartu zuen antolaketaren ardura. Orduetik hazten joan da eta Udalak kordinatu beharra ikusi zen.

### - Eta zein litzateke helburu nagusia?

- Ba haurrei hainbat ikastetxeren arteko txapelketetan parte hartzeko aukera ematea eta, era berean, formazio osatuagoa ematea, gutxienez bi kirol egitera beharturik baitaude Diputazioaren aginduz.

pelketetan parte hartzeko aukera ematea eta, era berean, formazio osatuagoa ematea, gutxienez bi kirol egitera beharturik baitaude Diputazioaren aginduz.

### - Hori ez doa espezializazioaren kalte?

- Uste dugu onerako dela. Azken batean kirol ezberdinak ikasteko aukera dute eta hortik abiatuta gustokoena landu

dezakete.

### - Zeintzuk dira aukera horiek?

- Mutil gehienek futbola aukeratzen dute eta neskek, berriz, eskubaloia behar bada. Hala ere pelota, txirrindularitza, atletismoa, igeriketa... etab. ere egin dezakete. Aukera zabala dago.

### - Eta infrastrukturen dagokionez?

- Ondo. IVEFen lizentziatutako bi monitore ditugu eta instalazio aldetik ere ezin gara kexatu. Hala ere Seminarioko arkupeak eta Poligonoko Ikastola hobetu beharra daude.

### - Zein da gero neska-mutilek duten irtenbidea?

- Ba, elkarte ezberdinetan sartzekoa. Normalean hori gertatu izan da, formazio onarekin irtezen baitira eskolatik.

## Lidergoaren bila

Bergara eta Donostiako Bizkor senior gizonen eskubaloia taldeek lidergoa eman diezaiketen partidua jokatu dute larunbatean 17.15etan Labegaraietako Kiroldegian. Josetxo Muniategiren taldea Urolari 18 eta 20ko emaitzaz irabaztetik dator eta momentuan 2. da sailkapenean Bizkor liderrarengandik bi puntutara. Larunbatean irabazi ezkererik beregarrek ia ziurtaturik lukete igoera fasea jokatzeko. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lehen bi taldeek jokatu dute ligilla hori eta lehen bigarrenak 2. Nazionalera igoko dira.




**AGOITZ**

**Tapizdenda**

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA



**ZABALETA ERROTULOAK**

Mc a guztietako errotuloak.

Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34



**Uberako eskolako mutikoak. 1942 ingurua.**

**Aurrean jarrita:** Rufino Laskurain, Juan Domingo Olañeta, Jose Gallastegi, Felix Gaztelu, Juan Lamariano, Justo Mujika (maixua), Blas Gallastegi (altzuan), Roke Lamariano, Antonio Laskurain, Hilario Ortiz, Juan Gallastegi eta Jesus Olañeta.

**Bigarren ilaran:** Inazio Aranzabal, Manuel Donamaria, Eustakio Arbulu, Jose M. Aranzabal, Inazio Gallastegik, Lorenzo Olañeta, Felipe Zezeaga, Felix Elorza, Pedro Aranzabal, Alejandro Aranzeta.



**Uberako eskolako neskak. 1942.**

**Lehen ilaran:** Victoria Aranburu, Martina Olañeta, Josefa Loiti, Palmira Alvarez (maistra), M. Paz Urien eta Rosario Zezeaga.

**Bigarren ilaran:** Jesusa Laskurain, Eurne Arbulu, Maria Luisa Markiegi eta Serapia Aranzabal.

**Hirugarren ilaran:** Teresa Loiti, Isabel Aranburu, Cristina Olañeta, Felisa Gallastegi, Andresa Loiti eta Anastasi Basauri.

**Laugarren ilaran:** Maria Elorza, Felisa Aranzabal, Begoña (Okandikua), Francisca Lamarain, Begoña Aranzeta, Martina Arbulu eta Francisca Basauri.



**Estepan Plazaola**  
**Argazkiak: Juan Domingo Olañeta eta Maria Elorza**

**DENA**  
**100etik**  
**ZURE OPARIENTZAKO**  
Simon Arrieta, 3

**BARBUFO**  
  
**SAN JUAN BERGARA**  
☎ 76 35 51

  
**IRUK-BAT**  
**IGELTSERITZA**  
☎ 76 24 74 20590 SORALUZE  
Biltegia eta bulegoak: Zubieta, 24 behea  
☎ 76 36 71 20570 BERGARA



**ETXEBIZITZA**

**Pisua salgai** Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

Neska bat behar da **Donostian pisua konpartitze**ko. ☎ 76 19 29.

**Garaje bikoitza** alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

**Arrizurin garajea** salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

**Jacan etxe bat** alokatzten da. ☎ 73 07 60. Beñoña. (gauzez).

**Artekalen pisua** salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

**Garajea salgai** Santa Marínan. ☎ 76 32 70.

**Garajea salgai** Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

**Pisua salgai** Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauzez).

**Garajea salgai** Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

**Pisua salgai** Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

**Pisua salgai** Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

**Pisu edo buardilla** bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

**DENETARIK**

**Kerosenozko estufa** japoniarra salgai ☎ 765584.

**Peavy 100 watts** bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatian (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

**Bateria salgai.** ☎ 76 47 07 (Richar).

**Kotxea salgai.** SS-P. 75.000pzta. ☎ 76 53 59.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

**SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai.** ☎ 76 50 18.

**Skiko Koflach-Valuga botak** erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Egunero **Bergararik Zornotzara** joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

**Etxean 2. BUP mailako partikularrak** hartuko nituzke ☎ 76 38 71.

**Etzeko gela bikoitza** bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

**ZANUSSI garbigailua** salgai. ☎ 78 34 16.

**Marketari lana** duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

**Garbigailua** oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

**Lau MSX joku** salgai. ☎ 76 59 47 (David).

**Etxean barruko ateak aldatzeko** asmotan baldin bazaude ez itzazu bota, gustora hartuko ditut eta. ☎ 76 40 54 (gauzez).

**Marketari lana** duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

**Softwaredun 2.400 BPS modema salgai.** Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**SEGA Megadrivea** salgai. (8 jokurekin). 35.000 pzta. ☎ 76 45 21 (Jabii).

**LANA**

**AutoCAD, FP2 Informetikan** praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

**Emakumezko batek haurrak** zaindu eta etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Itzulpen eta interprete** lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

**Neska batek etzeko lanak** egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 60 65 .

**Hildakoak**

*Miren Fano Markaida*  
otsailak 12, 71 urte  
*Justo Arregi Aranzeta*  
otsailak 18, 78 urte

**Jaiotakoak**

*Andoni Santamarina Perez*  
otsailak 10  
*Beñat Rezusta Muguruza*  
otsailak 13

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

**TELKAR**

PHILLIPS SONY

ZERBITZU TEKNIKOA

IBARGARAI, 2 ☎ 76 27 11  
BERGARA



# HALTZARI

## FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)




SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO GARANTIA**

# 93 ko ezkongaiak



### BIKOTE SARITUARENTZAT ERREGALIAK 93KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

**ERREGALIAK**

SENARGAIAREN JANTZIA  
ANDREGAIAREN JANTZIA  
ERAZTUNAK ETA ZILARREZKO 13 EZKON DIRU  
EZTAI EGUNERAKO CAVA  
SUKALDERAKO MAHIA ETA 4 AULKI  
EROSKETA TXARTELA  
ARGAZKI ERREPORTAIA  
PALMA DE MALLORCARA BIDAIA  
EROSKETA TXARTELA

**ETXEAK**

AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)  
BAYON (Donostia)  
KAREAGA (Eibar)  
CODORNIU  
IKER ( Mondragón)  
SOFAS LANDETA ( Azpeitia)  
FOTOKAI (Donostia)  
EROSKI BIDAIAK (Donostia)  
GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

**ZOKETA: OTSAILAREN 26an**

1994ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 26a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 93KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA \_\_\_\_\_ (izen deiturak)  
 \_\_\_\_\_ (helbidea)  
 \_\_\_\_\_ (herria) \_\_\_\_\_ (telefonoa)

ANDREGAIA \_\_\_\_\_ (izen deiturak)  
 \_\_\_\_\_ (helbidea)  
 \_\_\_\_\_ (herria) \_\_\_\_\_ (telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera) \_\_\_\_\_

HERRI Irratia



Radio POPULAR  
GIPUZKOA